

16/2022 FORU AGINDUA, otsailaren 24koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, zeinaren bidez hasten baita foru agindu bat prestatzeko prozedura, foru agindu horren bidez emanen baitira Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu, ebaluatu eta haien izendapena berritzeko arauak.

Hezkuntzako kontseilariak otsailaren 2an emandako 7/2017 Foru Aginduaren bidez, arauak eman ziren Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu, ebaluatu eta horien izendapena berritzeko arauak (2017ko 27. NAO, otsailaren 8koa; akats zuz., 2017ko otsailaren 9ko NAO).

Foru agindu bat prestatzea proposatzen da, ikastetxe publikoetako zuzendarien hautaketa eta izendapena oinarritzeko araudira egokitzeko; izan ere, zuzendaria hautatzeko eta izendatzeko prozesuen erregulazioa aldatu du abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak, zeinak Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen baitu, zeinetan zehazten baita hezkuntza-administrazioei dagokiela prozesuetarako deia egitea eta prozesuak garatzea.

Hori guztia bat etorritz Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikuluan xedatutakoarekin,

AGINTZEN DUT:

1.- Foru agindu bat prestatzeko prozedura hastea, foru agindu horren bidez emanen baitira Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu, ebaluatu eta haien izendapena berritzeko arauak.

2.- Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia izendatzea hura prestatu eta izapidetzeko ardura duen organo.

3.- Foru agindu hau igortzea Hezkuntza Zuzendaritza Nagusira, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zuzendaritza Nagusira eta Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 24an.

HEZKUNTZAKO KONTSEILARIA

Carlos Gimeno Gurpegui